

Dena emon ala Doraemon?!

Harritu egin nau Antena 3 telebis-tara Maddalen Arzallusek Irungo kanporaketan bota zuen bertsoa iristeak, baina badu lekua agurrean, artista senetik, umore jostarian eraikitako aleak telebista horretan, nik etxe horri buruz dudan iritzia izanda behintzat.

Zer pentsatu gehiago eman zidan euskal-erdarazko Telebistako albistegia irekitzeko bertso bera erabiltzeak. Bertsoak eta bertsolaritzak kate horri sortzen dion erakarmenaren berri ematen dit, noski bertsoari berari ezer kendu gabe, baina han ginenoi, emozioak erdiz erdi harrapatu zizkiguten beste hainbat bertso esanguratsu egonda.

Hitzekin, biziduna marraztu zuen Maialenek (Lunjabiok), pertsonaren egon nahi ez eta ezin egon muinene-koetatik eraikita. Maddalenek, berriz, egonezina ezin egon bilakatu zitzaion herri ordezkaria, lekualdaketari zego-kion aire berriz jantzi eta marrazki bizidun bihurtu zuen; haurren, gaztetxoaren eta errepiketan kantu-lagun izan zituen adinekoen, erreferente muinekoari arnasa eman. Biek asmatu zuten asmatzen bi antenek ez bezala.

Antena bidez elikatzen diren gure ikasleekin berdina gertatu zitzaidan, nik argia pizteko gogoeta jarri nien aurrean baina beraiek argi erakutsi



Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA BERTSOLARIA

Harritu nau Antena 3ra Maddalen Arzallusek Irungo kanporaketan bota zuen bertsoa iristeak baina (...) zer pentsatu gehiago eman zidan euskal-erdarazko ETBko albistegia irekitzeko bertso bera erabiltzeak

zidaten zein aukera zuten gogokoen: haurtzaroko egonezinak baretzeko jartzen zitzaion *Doraemon*, bat-bateko protagonista, bere herrian ezin egon eta ospa egindako independentista katalana.

Nire aukera eskaini nien eta haiek berena erreklamatu. Eta nire helburuak aintzat hartuta, kontua ez da zein den bi hautuetan interesanteena, hezteko aproposena, baizik eta euskara entzun, eztabaidatu, epaitu eta D eremuan (dena euskaraz) gure arteko komunikazioan ezinbesteko tresna bihurtzeko bertsoak zenbat balio dezakeen frogatu. Egundoko indarra du bertsoak eta argibide gutxirekin, itsuaurreko lan apur bat azpimarrak seinalatzeke eta lotura orokorrak ikusten laguntzeko gidaritzatiki batez, euskara elikagai gustagarri bilakatzen du.

Eta badago zerbaiten premia hainbeste kalko zizelkatzen zaizkigun garaiotan: “Bihar ikusten gara, gero egoten gara; “nire sesioan sartu nahi baduzu” (ordenagailuan, zure saioan ala sestran?); “hori horrela izan da urte luzeetan” (eta urte motzetan? bisurteak –egun bat gehiago– ote dira luzeak?); “mendian zehar ibili ginen” (bai eta Aizkorriera igo zinetela diozu... oso zehar ez!); “kale-tik dabil...”. Edo *eman / emon* aditzaren eraldatze sinestezina: “Hirugarren munduan pobrezia ematen da” (eta hartu?); “bihotzekoak eman dio” (lehen jo egiten zuen eta, ia beti, eman ordeztu); “muturrez eman da atearekin (eta ipurdiz erori atzeraka ordeztu)”. ■

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Finalurrekoak 2.itzulia

Azaroak 19. AMURRIO

Azaroak 26. DONIBANE LOHIZUNE

Abenduak 2. IRUÑEA

Antzerkia

Laguntza



ARGIA

bertsozale.eus